



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2023ko azaroaren 24koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Bilboko (Bizkaia) Artigasko zabortegian lurzoruak tratatzeko instalazioaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2023ko ekainaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko Zerbitzuak eskatu zuen Bilboko Artigasko zabortegian lurzoruen tratamendu-instalazioa ezartzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua emateko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoa betez.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68.1 artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidea hasi zela jakinarazi zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko Zerbitzuari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki iritzitako oharrek egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea hau da: ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketen proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, ingurumena babesteko maila handia bermatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 76. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta beharko dute II.D eranskinean aipatutako proiektuek. Ebazpen honen xede den proiektua II.D eranskinaren 8.c) taldeko epigrafean jasota dago: *Hondakin arriskutsuak balorizatzeke industria-instalazio finkoak, olio erabilien kudeaketa barne, egunean 10 tona baino gehiago onartzeko edukiera dutenak.*

Era berean, Artigasko zabortegian lurzoruak tratatzeko instalazioaren proiektuak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31. artikuluan ezarritako ingurumen-baimen bateratuaren araubide juridikoa bete beharko du, hondakin arriskutsuak balorizatzeke edo deuseztatzeke instalazio bat baita, egunean 10 tona baino gehiago onartzeko edukiera duena, Legearen I.A eranskinaren 5.1.b) egoeran jasoa.



Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioa nahikoa dela formalki egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egin dezan, pertsona interesdunei eta eragiten dien administrazio publikoei kontsulta egin ondoren.

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean zehaztutako eskakizunak hartu dira kontuan.

Hori alde batera utzi gabe, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23. artikuluan jasotako xedapenak aplikatuz, bateratu egingo dira ingurumen-baimen bateratuaren araubideari dagozkion administrazio-prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozedura. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen bateratuaren parte izango da, eta bi erabakiak administrazio-egintza berean emango dira. Hartara, prozedura biak behar bezala bateratzeko, eta sustatzaileak agiri berak bi aldiz bidaltzea saihesteko, dokumentu bateratua sortu beharko da, «Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa» izenekoa. Horrekin lotuta, ingurumen-baimen bateratua eskatzeko proiektu teknikoaren dokumentazioa osatzeko, barne hartu beharko dira ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudian ezarrita dauden alderdiak.

Beraz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak kontuan hartu dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horren ondoren, eta orain arte azaldutako guztiari jarraituz, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Garbiker MPAB SA enpresak sustatuta, Artigasko zabortegian lurzoruak tratatzeko instalazioaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Artigasko zabortegiak ingurumen-baimen bateratua du hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduerarako, 2008ko apirilaren 30eko hasierako ebazpenaren bidez emana (instalazioaren kodea: 16-I-01-000000000113). Ondoren, haren zenbait aldaketa onartu dira, eta instalazioen eta jardueraren titulartasuna aldatu da berriki. Hala, Bizkaiko Foru Aldundiaren ingurumen-baimen bateratua Garbiker MPAB SA enpresari eskualdatu zaio¹.

Proiektua Artigasko zabortegian lurzoruak tratatzeko bi instalazio egitean datza. Hondakin arriskugabeak zabortegian utziz deuseztatze jardueraz gain, Artigasak lixibiatuak tratatzeko, biogasaren balorizazio energetikorako eta konpostatzeko instalazioak ditu, besteak beste. Egin nahi den jarduera garatzeko, zabortegiaren ingurumen-baimen bateratua funtsean aldatu behar da.

¹ Ebazpena, Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez Garbiker MPAB SA enpresari eskualdatzen baitzaio Bizkaiko Foru Aldundiari emandako ingurumen-baimen bateratua, hondakin arriskugabeen zabortegi-jarduerarako, Bilboko udal-mugaratean (Bizkaia).

Instalaziora BI-3651 errepidetik sartzen da, hormigoizko errepide baten bidez. Instalazioaren barruan, hainbat pista asfaltatu daude, eta gune guztietara iritsi daiteke horietatik. Zaborteziaren ekialdeko muturrera bideetatik baino ezin da sartu.

Hondakin onargarriak

Eraldatutako lurzoruen bi tipologia tratatzea aurreikusten da: metal astunen eduki handia duten lurzoruak eta petroliotik eratorritako hidrokarburoekin eraldatutako lurzoruak (aurrerantzean, TPH).

Lurzoruak instalazioetan sartu aurretik, materialak karakterizatu egingo dira aldeztu aurretik, eta instalazioek beraiek erabakiko dute lur horiek onargarriak diren edo ez.

Proiektuaren hasierako dokumentuak kutsatzaileen sarrera-balio maximoak zehazten ditu, baita irteera-baldintzak ere, granulometriari eta kutsatzaile-mailei dagokienez.

Lurzoruak tratatzeko prozesuak

Lurzoruak tratatzeko jarduera hiru plataforma independentetan banatuko da, eta plataforma horiek bi eremu nagusi osatuko dituzte:

- 1. eremua: gaur egun konpostatzeko instalazioak dauden platforman bertan dagoen gainazal libre da, +90 kotan. 6.630 m²-ko azalera izango du, eta bertan jarriko dira lurzoruak garbitzeko instalazioa eta bulegoak.
- 2. eremua: zaborteziaren ezkerreko ibarraren goiko aldean bi plataforma proiektatuko dira, eta 2023rako aurreikusita dauden zaborteziak zigoratzeko lanetan osatuko dira. Plataformetako batean (10.006 m²), +205 kotan, desortzio termikoko instalazioa instalatuko da. Bigarren plataformak tailerra eta teknozoruen pabiloia hartuko ditu; +215 kotan egongo da eta 6.581 m²-ko azalera izango du.

Instalazio berriak, guztira, 23.217 m² izango ditu.

Hartutako lurzoruak tratatzeko, prozesu independenteak dituzten bi instalazio jartzea aurreikusi da: desortzio termikoko instalazioa eta hondakinak garbitzeko instalazioa.

1. Desortzio termikoko instalazioa

TPHagatik eraldatutako lurzoruak desortzio termikoko teknologiaren bidez tratatuko dira. Desortzio termikoko teknologia horren oinarria da kutsatutako lurzorua 600 °C inguruko tenperaturetan berotzea, oxigeno gutxiarekin. Urtean 100.000 tonako edukiera izango du, aldi aldakorretan egunean 24 orduko etengabeko funtzionamendu-erregimena kontuan hartuta.

Lurzoruaren ezaugarrien arabera, hainbat aurretratamendu egin daitezke (ferrikoak bereiztea, birrintzea, nahastea edo homogeneizatzea). Baheketaren ondoren, labe birakari batean sartuko da (desorbatzailea ere deitzen zaio). Labean zer tenperatura erabili eta hondakina labe barruan zenbat denboraz mantendu hondakinaren ezaugarrien arabera erabakiko da. Desorbatzailetik datorren lurzorua hoztu egin behar da manipulatu aurretik; sarritan ura erabiltzen da horretarako.

Prozesuan sortutako gasak atmosferara askatu aurretik tratatuko dira. Lehenik eta behin, partikulak zikloi eta/edo zeramika-iragazki baten bidez bereiziko dira, eta, ondoren, gasak garbituko dira *scrubber* bidez. Lehenengo fasea beti gauzatuko da, eta garbiketa, berriz, kutsatzaile batzuentzat bakarrik da beharrezkoa. Gasak garbitzean efluente likido bat sortzen da, eta behar bezala kudeatu beharko da hori.

Prozesuaren ostean, kutsatzaile lurrunkorrenak gas-korronte batera igarotzen dira, zeina atmosferara igorri aurretik tratatzen baita.

Desortzio termikoko prozesuaren irteera gisa, hiru korronte nagusi sortzen dira:

- Bahetze-prozesuaren irteeran, lurzoru fineko korrante solido bat, tratatua, azken biltegitratze-aletegietara eramango dena, bidali aurretik, eta lerroaren ekoizpen-ahalmena 24 t/h-koa izango da.
- Bahetze-prozesuaren irteeran, lurzoru lodiko korrante solido bat, tratatua, hori ere biltegitratze-aletegietara eramango dena, bidali aurretik. 6 t/h inguruko emaria aurreikusten da.
- Gas-korrante bat, gasak tratatzeko sistematik datorrena (errekuntza-ganbera eta errekuntzaren ondorengoa) eta 50 t/h-tik gorako emaria izango duena.

Desortzio termikoko prozesua estalpean egingo da. Instalazioa osatzen duten ekipo eta azpiegitura nagusiak honako hauek dira:

- Aurretratamenduaren aurretik lurzorua jasotzeko eta aldi baterako biltegitratzeko eremu bat.
- Inpropioak deuseztatzeko aurretratamendu-lerro bat, tobera, zokorrak hausteko makina, bereizgailu magnetikoa, bahea, aletegiak elikatze tobera eta aletegiak dituen.
- Desortzio termikoko lerro bat, honako hauek osatua:
 - o Lehengaia hartzeko edo lehengaia tratamendu-lerrora elikatze tobera bat. Nahasgailu bati lotuta joan daiteke, TPHen kontzentrazioa doitzeko.
 - o Lehorgailu birakari bat, tratatuko diren materialak aurrez berotzeko. Aurrez lehortutako materialaz gain, gas-korrante bat sortuko da, eta tratatu egingo da.
 - o Desorbatzaile bat (labe birakaria). Lur bero deskontaminatuaz gain, gas-korrante bat ere sortzen du.
 - o Aurreko unitateetatik datozen gas-korranteak arazteko sistema bat.
 - o Tximinia bat.
 - o Hozkailu bat desorbatzailetik datorren materialerako.
 - o Frakzio lodia eta fina hoztutako lurzorutik bereizteko bahea.
 - o Tratutako lurzoruak aldi baterako biltegitratzeko irteera-aletegiak.

2. Hondakinak garbitzeko instalazioa

Metal astunengatik eraldatutako lurzoruen tratamendua lurzoruak garbitzeko teknologian oinarritzen da. Teknologia horren bidez, kutsatzaileak garbiketako uretan disolbatzen edo esekitzen dira. Urtean 100.000 tonako edukiera izango du, egunean 8 orduko funtzionamendu-erregimena kontuan hartuta.

Lurzorua garbitu aurretik, homogeneousatu egiten da, partikula finak eta lodiak bereiziz. Tratamenduko urari hainbat gehigarri eta errektibo gehitzen zaizkio, tratatuko den kutsatzailearen izaeraren arabera.

Lurzorua aletegi espezifiko batean deskargatzen da, lurzoru «gordina» jasotzeko eta aldi baterako biltegitratzeko. Inpropioak deuseztatzeko aurretratamendu-lerro batetik igaro ondoren, lurzorua horretarako gaitutako beste aletegi batzuetan biltegitratzen da.

Aletegi horietatik, aldeztu aurretik tratutako lurzorua garbiketa-instalazioaren/lerroaren elikadura-toberara eramaten da. Garbiketa ondoz ondoko hainbat etapatan egiten da. Prozesua estalpean gertatzen da.

Garbiketa-prozesuaren irteera gisa, korrante nagusi hauek sortzen dira:

- Granulometria desberdineko hiru legar-korrante (guztiak > 5 mm), lurzoruak garbitzeko bahearen irteeran lortuak; 10 t/h inguruko guztizko emaria izango dute.
- Zurrunbilotzearen bigarren etapatik datorren harea-korrante bat, xukatu ondoren, harea garbien pilaketara bideratuko dena. Korrante horren emaria 23,4 t/h ingurukoa izango da.
- Prentsa-iragazkien irteeran opil solido bat, grabitate bidez deskargatuko dena horretarako prestatutako ontzi batzuetan; 18 t/h inguruko emaria izango du. Korrante hori kamioietan bilduko da, kanpo-kudeaketarako.
- Ur-andel lodigarri/gardengarritik datorren ur-korrante bat, eta, ur gardenez betetako tanga batetik igaro ondoren, berriro erabiltzen da hurrengo garbiketa-ziklorako. Korrante horri dagokionez, 228 t/h-ko emaria kalkulatzeko da (zirkuitu itxian mugitzen dena), eta horren % 1 inguru (2,28 t/h) birjarri beharko litzatekeela uste da.

Instalazioa osatzen duten ekipo eta azpiegitura nagusiak honako hauek dira:

- Lurzoru gordina jasotzeko eta aldi baterako biltegitatzeko eremu bat.
- Inpropioak deuseztatzeko aurretratamendu-lerro bat, desortzio termikoko instalazioan deskribatutakoaren antzekoa (tobera, zokorrak hausteko makina, bereizgailu magnetikoa, bahea, aletegiak).
- Honako elementu hauek osatzen duten garbiketa-lerro bat:
 - o Elikadura-tobera bat.
 - o Garbitzeko bahe birakaria edo zilindro garbigailua.
 - o Bahe birakariaren zatirik lodiena bahe dardarkari batera bidaliko da, hiru zatiki desberdin lortzeko. Xukatutakoan, dagokion pilaketara bidaliko da.
 - o Bahe birakaritik datorren zati fina hidrozikloi batera bidaliko da, finak uretatik askatzeko.
 - o Finak lortzeko bi atrizio-gelaxka.
 - o Bigarren hidrozikloi bat, atrizio-gelaxketako materiala jasotzen duena. Finik gehienak askatzen dira.
 - o Polielektrolitoa fabrikatzeko prolipropileno-gordailu bat.
 - o Andel lodigarri/gardengarri bat, ponpa zentrifugoa duena, lohi astunak dekantatu eta ateratzeko.
 - o Ur gardenez betetako andel bat, gainezkatutako lodigarria jasotzeko.
 - o Iragazi aurretik lohiak egokitzeko bi birika-andel.
 - o Bi prentsa-iragazki, kutsadura gehiena biltzen duen fase solidoa bereizteko.
 - o Instalazioari ura gehitzeko bi ponpa.
 - o Lixibiatuak eta galerak biltzeko bi ponpa.
 - o Hiru aletegi, tratatutako lurzoruak aldi baterako biltegitatzeko.

Azpiegitura osagarriak

- Teknozoruen pabiloia: hirugarren plataforman dago, eta lurzoru kutsatuak beste lurzoru batzuekin eta konpostarekin batera tratatzetik eratorritako agregakin sekundarioekin teknozorua fabrikatzeko ekipamendua izango du.
- Materialak biltegitratzeko parkeak: plataforma bakoitzak tratatu behar den materiala biltegitratzeko gune bat izango du
- Tailerra: hirugarren plataforman dago, teknozoruen pabiloiaren ondoan.
- Bulegoak: desortzio termikoko instalazioaren ondoan daude.
- Baskula eta sarrera-kontrola: dagoeneko instalatuta daude Artigasko instalazioen sarreran.

Efluentek

- Hondakin-ur sanitarioak bildu eta laneko plataformetan jartzea aurreikusten den tratamendu-instalaziora bideratuko dira.
- Ekoizpen-prozesuko hondakin-urak lurzoruak garbitzeko instalazioari dagozkio, lodieran eta prentsa-iragazkietan sortutakoak. Prozesuari zerbitzu emateko tratamendu-instalazio espezifiko batean tratatuko dira. Hondakin-ur guztiak berrerabiliko dira, eta, hortaz, dokumentazioaren arabera, ez da jarduerarekin lotutako isurketarik egongo.

Teknika erabilgarri onenak

Hondakinak tratatzeko instalazioaren proiektua honako dokumentu hauek kontuan hartuta diseinatuko da:

- Best Available Techniques (BAT) reference document for waste treatment (08.2018).
- Biltegitratzetik eratorritako emisioen BREF agiria (2006/07).
- Hondakinen tratamendurako BREF agiria (2018/08).
- Energia-efizientziari buruzko BREF agiria (2009/02).
- Urak eta hondakin-gasak tratatzeko BREF agiria (2018/03)

Alternatiben azterketa

Honako tratamendu-alternatiba hauek aurreikusi dira:

- 0 alternatiba: jarduketarik ez egitea Lurzoruak *in situ* tratatuko dira, ahal den kokalekuetan, gainerako lurzoruak zabortegetan kudeatuz. Uko egiten zaio hondeatutako lurzoruak tratatuko dituen zerbitzu bat izateko beharragatik.
- 1. alternatiba: lurzoruak garbitzea. Matrize solidoan dauden kutsatzaileak deuseztatzea, kutsatzaileak disolbatuta edo kontzentratuta.
- 2. alternatiba: biopilak. Biopilen barruan mikroorganismoen eraginez kutsatzaileak ezabatzean datza.
- 3. alternatiba: *landfarming*. Biopilen aitzindaria da; lurzoru ohande edo ohe moduan banatzean eta kutsatzaile organikoen biodegradazio-prozesua erraztean datza.

- 4. alternatiba: desortzio termikoa. Lurzorua berotzean datza (550 °C ingurura arte, gutxi gorabehera), konposatu kutsatzaileak lurrundu eta kentzeko.
- 5. alternatiba: errausketa. Lurzorua berotzea da (870 eta 1.200 °C artean), oxigenoa dagoenean.

Proiektuaren hasierako dokumentuak alternatiben abantaila eta desabantaila nagusiak aztertzen ditu, eta, azkenik, 1. eta 4. alternatibak aukeratzen ditu, lurzoruak garbitzea eta desortzio termikoa, hurrenez hurren.

Eremuaren ezaugarriak

Artigasko zabortegia Kadagua ibaiaren eskuinaldeko ibarbide batean dago, Bilboko udalerrriaren hego-mendebaldeko muga, Alonsotegiko lurraldetik gertu. 35 ha inguruko azalera du, zeina batez ere zabortegiak berak hartzen duen, baita hondakinak prozesatzeko hainbat instalazio eta interpretazio-zentro bat ere. Proiektatutako instalazioak jarriko diren lurzatiak zabortegiko betegarrien eremu zigilatuei edo betegarri antropogenikoei dagozkie. Beraz, artifizializazio-maila handia du eremu horrek, eta ez du intereseko natura-baliorik.

Honako hauek dira haien ingurumen-ezaugarri nagusiak:

- Eremua Ibaizabaleko Unitate Hidrologikoan dago, Kadagua IV ur-masaren arroan, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko erkidegoarteko arroen eremuan. Zabortegiaren jardura instalatzearen ondorioz, inguruko ibai-sare naturalaren ordeztu, drainatze perimetralak eta ubideak jarri dira, urak Kadagua ibaiarekin elkartzen den erreka txiki bateraino bideratzeko.
- Kadagua ibaia eta zabortegiaren eremuan dagoen erreka bisoi europarraren kudeaketa-planaren eremuaren barruan dago, interes bereziko eremu gisa kalifikatuta (ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretuak babesten du. Dekretuaren bidez, Bisoi Europarraren –*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761)– Kudeaketa Plana onartu zen Bizkaiko Lurralde Historikoan, galzorian dagoen eta babesteko neurri bereziak behar dituen espeziea baita). Hala eta guztiz, errekaaren egungo egoera kontuan hartuta, oso litekeena da espeziea bertan ez egotea.
- Eremua hegoaldeko antiklinorioko lurpeko masaren gainean dago, eta ez da interes hidrogeologikoko eremurik identifikatu proiektuaren eremuan. Gainazaleko materialek iragazkortasun txikia dute porositateagatik, eta oso txikia da azpiko akuiferoa kutsatzeko arriskua.
- Esan bezala, proiektuaren xede diren lurzatiek artifizializazio-maila handia dute, eta, beraz, ez dago landararik, edo espezie erruderalak eta nitrofiloak daude bakarrik. Egungo konpostatzeko instalazioen alboan, zuhaixka eta zuhaitz batzuk ere badaude.
- Proiektuaren eremuan ez dago ez naturagune babesturik, ez korridore ekologikorik, ez interes geologikoko lekurik. Halaber, ez dago sartuta ezein katalogotan (ez EAEko naturagune garrantzitsuen katalogo irekiko eremuan, ez LAG-Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako interes naturalistikoko eremuen zerrendajn), ez Europar Batasuneko intereseko habitatetan, ezta landare-espezie mehatxatuenetan ere. Era berean, ez dago Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.
- Zabortegia abifauna babesteko eremu batean sartzen da, zehazki Artigas-Ganekogorta sektorean. Zabortegiaren mugaren barruan, zenbait linea elektrikoa daude, eta ez dituzte betetzen abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuaren manuak (1432/2008 Errege

Dekretua, abuztuaren 29koa, goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituen). Hala ere, horietako bat ere ez da proiektuaren xede diren lurzatietatik igarotzen.

- Artigasko zabortegia kokatuta dagoen ikuseremuaren (Castrexana) paisaia-balorazio orokorra oso txikia da (EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoaren Aurreproiektua. Eusko Jaurlaritza. 2005. urtea). Bestalde, Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoaren eta Zehaztapenen arabera, ingurunea «10.- Kadagua» paisaia-unitatean sartzen da. Katalogo horrek, tratamendu-azpiegiturei dagokienez, kudeaketa-azpiegituren paisaia-integrazioa hobetzeko beharra zehazten du.
- Proiektuaren eremuan ez da katalogatutako edo katalogatzeko proposatutako kultura-ondareko elementurik hauteman.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez, instalazioak jarriko diren lurzatiak kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituen edo izan dituen lurzati inbentariatu batean sartzen dira (48020-00085 kodea). Aitzitik, ez da ezein SEVESO enpresaren istripuen eragin-eremuan sartzen, eta ez da urrakorra uholde-arriskuekiko, sismikotasunarekiko edo baso-suteekiko. GeoEuskadin eskuragarri dagoen kartografiaren arabera, konpostatzeko instalazioaren inguruan higadura-arrisku handia duten lurzorua daude.
- Zarataren harira, proiektuaren eremuari eragiten dioten zarata-foku nagusia BI-636 errepidea da; 300 m-tik baino gehiagora igarotzen da lurzatiaren ipar-mendebaldean. Bizkaiko Foru Aldundiaren errepide-sareko zarata-mapa estrategikoen arabera, proiektatutako instalazioak errepide horren zortasun akustikoko eremutik kanpo geratzen dira; izan ere, 55 dB(A) baino soinu-maila txikiagoak dituzte.

Balizko inpaktuak

A priori, proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, proiektuarekin lotutako inpaktu nagusiak honako hauek izango dira: paisaia aldatzea, prozesuko lixibiatuak sortzea, emisio atmosferikoak, zarata eta bibrazioak, eta asentu diferentzialen eta ezegonkortasunaren ondoriozko arrisku geoteknikoak.

Era berean, obren fasean, ingurunearen gaineko inpaktu nagusiak honako hauen ondorio izango dira: kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzati bateko lur-mugimenduak, makinen joan-etorriak, eta, horren ondorioz emisio atmosferikoak (partikulak, zarata), hondakin-sorrera, obran sortutako efluenteei lurrazaleko uretan izan ditzaketen eraginak, makinen mantentze-lanetako istripuzko isurketak eta abar.

Kontuan hartuta proiektua zigitatutako zabortegi bat itxi ondorengo erabilera baten esparruan garatzen dela, inpaktuak txikiak direla uste da. Proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, jardueraren instalaziotik eratorritako inpaktu batzuk positibotzat jo daitezke, inguruko ingurumen-baldintzak hobetzen badituzte.

Instalazio berrien funtzionamendu-fasean, printzipioz, honako inpaktu hauek egotea espero daiteke: zarata, emisio atmosferikoak (usainak barne), instalazioaren funtzionamendurako baliabideen kontsumoa, hondakinak, isurketak egitea uretara eta lurzoruetara, etab. Hasierako dokumentuan, teknika erabilgarri onenak jasotzen dira; horrela, prebentzioaren eta kontrolaren arloan indarrean dagoen araudian ingurumena oro har babesteko adierazitako helburuak betetzen direla bermatuko litzateke.

Haatik, proiektuak, soluzioaren garapenean, behar diren neurriak hartuko ditu inpaktu bakar batek ere ez dezan «garrantzi gutxikoa» atalasea gaingitu.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabalatasuna, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila

Hasteko, aipatu behar da Artigasko zabortegian (Bilbo, Bizkaia) lurzoruak tratatzeko instalazioaren proiektua Artigasko zabortegiaren egungo ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketa gisa izapidetzen dela.

Proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaio, eta, modu berean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 31. artikuluan ezarritako ingurumen-baimen bateratuaren araubide juridikoa bete beharko du, hondakin arriskutsuak balorizatzeko edo deuseztatzeko instalazio bat baita, egunean 10 tona baino gehiago onartzeko edukiera duena, Legearen I.A eranskinaren 5.1.b) egoeran jaso.

Ondorioz, proiektuari dagokion ingurumen-baimen bateratuaren prozeduraren esparruan, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 33. artikuluekin bat etorritik, interesdunak eskatu ondoren, instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalak proiektua hirigintza-plangintzarekin bateragarria dela egiaztatzen duen txostena egin beharko du.

Nolanahi ere, artikulua horretan araututako hirigintza-txostena negatiboa balitz, txosten hori noiz igorri den berdin diola, baina betiere Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak ingurumen-baimena eman baino lehen jaso badu, baimen hori emateko eskumena duen organoak ezezeko ebazpen arrazoitua emango du, amaiera emango dio prozesuari eta artxibatu egingo ditu jarduerak.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 23. artikuluan xedatzen dena aplikatuz, bateratu egingo dira ingurumen-baimen bateratuaren araubideari dagozkion administrazio-prozedura eta ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioaren prozedura. Gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren edukia ingurumen-baimen bateratuaren parte izango da, eta bi erabakiak administrazio-egintza berean emango dira. Hartara, prozedura biak behar bezala bateratzeko, eta sustatzaileak agiri berak bi aldiz bidaltzea saihesteko, dokumentu bateratua sortu beharko da, **«Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa»** izenekoa. Horrekin lotuta, ingurumen-baimen bateratua eskatzeko proiektu teknikoaren dokumentazioa osatzeko, barne hartu beharko dira ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren araudian ezarritako dauden alderdiak.

Eskaeraren edukia:

- A) Proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterketa.
- B) Laburpen ez-teknikoa.
- C) Sektoreko legerian adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

A) PROIEKTU TEKNIKOA ETA INGURUMEN-INPAKTUAREN AZTERKETA.

Apartatu honetan aurkeztu eta garatu da, oro har, ingurumen-baimen bateratua eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa, baita, zehaztasun handiagoz, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko beharrezkoa den informazioaren irismena ere. Informazio hori modu bateratuan sartu beharko da dokumentu bakar batean, eta abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 34. artikuluan ezarritako edukietara egokituko da.

Proiektu teknikoan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan garatu beharreko apartatuen eskemak honelakoa izan behar du:

1. Jardueraren eta ingurumen-inpaktua eragin dezaketen ekintzen ezaugarri orokorrak.
2. Ordezko aukerak aztertzea eta teknika erabilgarri onenak ezartzea (aurrerantzean, TEO).
3. Baliabideen eta energiaren erabilera eta kontsumoa.
 - a) Energia-kontsumoa.
 - b) Ur-kontsumoa.

- c) Lehengaiak eta material osagarriak: biltegiatzea, erabilera eta kontsumoa.
- 4. Emisioen deskribapena eta zenbatekoa.
 - a) Airerako emisioak.
 - b) Zaratak eta bibrazioak.
 - c) Argi-emisioak.
 - d) Uretarako isuriak.
 - e) Berotegi-efektuko gasak.
- 5. Hondakinen sorrera eta kudeaketa.
 - a) Hondakinen sorrera.
 - b) Hondakinen bilketa eta kudeaketa.
- 6. Instalazioa kokatuko den lekuaren ingurumen-inbentarioa.
- 7. Jarduketak eremu hartzailean izan ditzakeen eraginak identifikatzea eta baloratzea.
- 8. Ustiapen-baldintzak eta ingurumena narriatzea saihesteko beste neurri batzuk.
 - a) Babes- eta zuzenketa-neurriak obra-fasean.
 - b) Instalazioan hondakinak entregatzeko, hartzeko eta kontrolatzeko baldintzak
 - c) Airerako emisioak minimizatzeko neurriak.
 - d) Uretarako isuriak minimizatzeko neurriak.
- 9. Lurzoruaren oinarritzko txostena.
- 10. Ingurumena Zaintzeko Programa.
- 11. Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak, proiektuaren urrakortasuna kontuan hartuta.

Gainera, sustatzaileak aurreko apartatueta zehaztutako ohar guztien laburpen ez-tekniko bat erantsi beharko du eskabidean, jendaurreko informazioaren izapiderearen ondoretarako errazago uler dadin.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean zehazten da zein diren ingurumen-inpaktuaren azterketa egiteko nondik norakoak.

Proposatzen diren jarduketak eta kaltetu daitezkeen ingurumenaren ezaugarriak direla-eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumen-inpaktuaren azterketak aipatutako apartatu horiek garatu beharko ditu, honako zabaltasun eta xehetasun-maila hauekin.

1. Jardueraren eta ingurumen-inpaktua eragin dezaketen ekintzen ezaugarri orokorrak.

Apartatu honetan, lurzoruak tratatzeko instalazio berriaren eta erantsitako azpiegituren jarduerarako beharrezkoak diren jarduketak eta instalazioak deskribatuko dira. Taxuz identifikatu beharko dira instalazioek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren proiektuko jarduketa guztiak.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 34. artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean aipatzen den informazioa alde batera utzi gabe, apartatu honetan honako hau jasoko da berariaz:

Obra-fasean inpaktuak sor ditzaketen proiektuko jarduketak

- Lurzoruak tratatzeko instalazioen kokapen geografikoa.
- Instalazio berriko obra-fasean ingurumen-inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen deskribapena. Kontuan hartuko dira bai aurreikusitako instalazioak gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketak, bai planteatzen diren jarduketak gauzatzeko behar diren instalazioak edo zerbitzu erantsi edo osagarriak (bide-sarbideak, ur-hornidura, elektrizitatea, saneamendua, etab.).

Instalazioen oinarri izango diren plataformak, instalazioen ezaugarriak eta, hala badagokio, instalazioari erantsitako azpiegiturak, behar besteko xehetasunez definituko dira,

ingurumenaren ikuspegitik, aukeratutako kokalekuaren egokitasuna, lurren okupazioa eta obren ezaugarri orokorrak aztertu ahal izateko. Barne hartuko ditu proiektuaren eremuko oinplanoak eta sekzioak, zehaztuz, gainera, non izango diren sare orokorreko harguneak.

- Proiektatutako jarduketek erabilera berriak hautatutako kokalekuaren ezaugarriekin (zaborteigiko plataforma zigilatutako edo zigilatzeke daudenak) bateragarri egiteko aukera ematen duten ala ez zehaztuko da, besteak beste, honako hauekin lotuta: lurzoruen baldintza fisiko-kimikoak, egonkortasuna, isuriak eta emisioak (lixibiatuak, gasak) biltzeko eta drainatzeko sistemak egotea zaborteigian, etab.
- URA-Uraren Euskal Agentziaren txostenaren arabera, beharrezkotzat jotzen da eskura dagoen informazioa aztertzea, eta *in situ* azterketa bat egitea, inguruan lurpeko deskarga-punturik edo iturbururik dagoen baztertzeko. Alde horretatik, azterketa geologikoak, hidrologikoak eta hidrogeologikoak egin beharko dira, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko aurreikusitako neurriekin, bai eta kontrol-sarearen ezaugarriekin eta aurreikusitako zaintza-planarekin ere bat etorritik. Azterketa horiek lurzoruak tratatzeko instalazioa ezarri aurreko diagnostiko bat izan beharko lukete, eragiketa-fasekoarekin alderatu ahal izateko.
- Obrako instalazio osagarriak kokatzea: makineria-parkeak, lehengaiak eta indusketa-materialak metatzeko lekuak, etab.
- Lurren mugimenduaren balantzea. Sortutako hondeaketa-soberakinen kopurua, kudeaketa eta helmuga. Mailegu-materialen premiak, kuantifikazioa, ezaugarriak eta jatorria.
- Aurreikusten den obra-iraunaldia, obraren plana (haren faseetako bakoitzaren iraunaldia, halakorik balego) eta instalazioak martxan jartzeko aurreikusitako data.
- Obra-fasean atmosferara egindako emisioak (hautsa, zarata eta bibrazioak) sortzea.
- Isurketak sortzea obra-fasean: isurketen izaera, arazketa-sistemak eta isurketen azken helmugak.
- Obra faseko hondakinen ekoizpena: kantitateak, mota eta kudeaketa, helmuga.
- Kalte litezkeen zerbitzuak (elektrizitatea, ur-hornidurarako eta -saneamendurako sistemak eta abar) etetea eta berriz jartzea.
- Obrako trafikoa: ibilgailu astunen joan-etorrien zenbatespena eta hautatutako ibilbideak. Sor daitezkeen eragozpenak.

Proiektuaren jarduketak, jardueraren funtzionamendu-fasean inpaktuak sor ditzaketanak.

- Lurzatiaren hirigintza-sailkapenaren definizioa, honako hauek zehaztuta: baimenduta eta debekatuta dauden erabilerak, indarreko hirigintza-plangintzan ezarritako erabilera-baldintzak. Gainera, proiektuaren bideragarritasuna justifikatu beharko da, hirigintza-ikuspegian oinarrituta.
- Bilboko Udaletik jasotako txostenaren arabera, beharrezkoa izango da eraikuntzen bolumetria eta eraikigarritasuna zehatz-mehatz definitzea, bai eta Arraiz-Artigas Igorritako Antolamenduko Eremuaren Plan Berezia arautzen duten ordenantzetan ezarritako parametroetara egokitzen direla justifikatzea ere. Plan berezia 2009ko ekainaren 2an onetsi zuen behin betiko foru-administrazioak.
- Instalazioaren kokapena eta hurbilen dauden etxebizitzetikiko, biztanleguneetikiko, ekipamendu komunitarioetikiko, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiekiko eta abarrekiko distantziak. Kokalekuaren eta lurzatian ezartzearen planoak (1:10.000 eskala).
- Lurzatiaren azalera eta instalazioak nola dauden kokatuta. Zolatuko den lurzatiaren azaleraren ehunekoa adierazi beharko da, baita zer motatako zoladura den ere.
- Instalazioen sarbidearen deskribapena eta sarbide-kontrolarena.

- Proiektatutako eraikin, pabiloi eta esparruen eraikuntza-ezaugarri orokorrak: neurriak, egiturak, fatxadak, itxiturak eta estalkiak. Oinplanoak, altxaerak eta sekzioak.
- Instalazioan garatzen diren prozesu-lerroak deskribatzea. Linea eta instalazio bakoitzaren gaitasun izendatua, aurreikusi den jarduteko araubidea eta aurreikusi diren langile- eta kualifikazio-beharrak adieraziko dira, honako datu hauek barne: txandakako lanaldia dagoen, jarduteko araubidea eta urteko ordu kopurua. Masen eta energiaren balantzeak sartuko dira eta potentzia izendatu globala (kW) adieraziko da.
- Hondakinak instalazioan sartu eta jasotzen direnetik egiten diren prozesu operatibo guztien deskribapen zehatza. Aurreikusitako lerro bakoitzean, prozesuaren fluxu orokorraren diagrama bat adieraziko da, prozesu osagarriak barne direla. Ingurumenean eragina sor dezaketen prozesuak identifikatu eta prozesu bakoitzean generikoki sortzen diren hondakinak eta efluenteak (gasak edo likidoak) adieraziko dira. Espero diren hondakin-uren fluxuei dagokienez, banaka identifikatuko dira eta bakoitzaren jatorria identifikatuko da.
- Desortzio termikoko lerroan, TPH eduki altu eta baxuko lurzoruak nahasteko irizpideak argitu beharko dira, eta zergatik egiten den justifikatu (instalazioaren ezaugarriak...). Halaber, nahasketa egiteko prozedura deskribatuko da, baita lurzoru batek TPH eduki txikia duela zehazteko erabiltzen diren irizpideak ere.
- Lurzoruak garbitzeko lerroaren prozesuan, baliteke kutsatzaile organikoak dituzten lurrak garbiketako uretara pasatzea, eta hori kontuan hartuko da. Izan ere, deskribatutakoaren arabera, garbiketa-ur hori finak eta partikulak tratatzeko erabiltzen da, baina ez disolbatutako kutsatzaileak tratatzeko. Beraz, zirkuitu itxi bat aurreikusten denez, baliteke urak kutsadura hori transmititzea karga kutsatzaile hori ez duten lurzoruetara.
- Instalazio nagusiak, osagarriak eta ekipamendua deskribatzea. Jarduera garatzeko aurreikusitako makineriaren eta ekipamenduaren zerrenda, kasu bakoitzean potentzia elektrikoa eta/edo termikoa adierazita.
- Azpiegitura eta ekipamenduen deskribapen zehatza. Azpiegitura komunei buruzko informazioa ere eman beharko da, honako hauena: biltegiatze-eremuak, hondakinak kudeatzeko sistemak, berotze- eta hozte-sistemak eta abar.
- Drainatze-sareak. Aurreikusitako drainatze-sareen oinplanoa (euri-ur garbiak eta zikinak, ur beltzak, prozesuko urak), isurketa-puntuak adierazita.
- Ustiapen-fasean dagoen trafikoa: ibilgailu astunen joan-etorrien zenbatespena eta hautatutako ibilbideak.

Proiektuaren jarduketak, jarduera eteteko fasean inpaktuak sor ditzaketenak.

- Jarduera desegiteko jarduketaren deskribapena.

Apartatu honetako informazioarekin batera, edukiak hobeto ulertzeko beharrezkoak diren proiektuaren eskalako planoak emango dira, proiektatutako jarduketaren oinplanoak, luzetarakoak eta zeharkakoak barne.

Besteak beste:

- Instalazioen planoak, 1/2000 eskalan edo zehatzagoan, gutxienez honako elementu hauek barne hartuta: urbanizazioa (eraikinak, bideak, espaloiak, aparkalekuak, etab.) paisaia egokitzeak neurriak (landaketak, heskaiak edo landare-pantailak, lorategi-eremuak eta abar), drainatze-sareak (euri-urak, ur beltzak, hondakin-urak), hornidura- eta zerbitzu-sareak, eta harguneak (ura, elektrizitatea, gasa, etab.).
- Jarduera ezartzeko plataformen sekzioen planoak.

2. Alternatibak aztertzea eta teknika erabilgarri onenak ezartzea.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenaren arabera, ingurumen-inpaktuaren azterketan, irizpide anitzeko azterketa bat sartu behar da, proposatutako

proiekturako teknikoki bideragarriak diren aukerei buruz; ingurumenaren aldetik egokienak eta proiekturako garrantzitsuak diren alternatibei buruz (zero aukera edo jarduketarik ez egitea barne), hain zuzen. Halaber, proposatutako konponbidearen justifikazio bat sartu behar da. Jarduketan dimentsioari eta hedadurari buruzkoa izan beharko du, bai eta dauden konponbide teknikoei buruzkoa ere.

Horretarako, eta lurzoruak tratatzeko instalazioen funtzionamenduaren harira, teknika erabilgarri onenak (TEO) edo antzeko ingurumen-eremak eskaintzen dituzten beste batzuk erabili izana justifikatu beharko da, jarduera osoari dagokionez. Proiektuaren alderdi partikularrak azpimarratuko dira bereziki, eta, horri dagokionez, BREF dokumentu honetan ezarritako neurriak eta baldintzak kontuan hartuko dira: *Europako erreferentziako teknika erabilgarri onenak hondakinen tratamendurako [Batzordearen 2018/1147 (EB) Betearazpen Erabakia, 2018ko abuztuaren 10ekoa, hondakinak tratatzeko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dituen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorritik]*.

Jardueran erabiltzea aurreikusten diren teknikak identifikatu beharko dira, hau da, aipatutako dokumentuan teknika erabilgarri onenentzat (TEO) jotzen direnak. Kasu bakoitzean lortu nahi diren emisio-balioak adierazi eta justifikatuko dira, inplikaturako prozesuen ezaugarri diren gai kutsatzaileak kontuan hartuta. Arreta berezia jarriko zaie Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu batekina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren II. eranskinean zerrendatutako substantziei.

Alternatibarik onena hautatzeko, askotariko irizpideak jasotzen dituen azterketa global bat egingo da. Azterketa horretan, alderdi ekonomikoak (kostu energetikoa, errendimendua) eta gizarte- eta ingurumen-alorrekoak hartuko dira aintzat.

Apartatua bukatzeko, hautatutako alternatiba justifikatu beharko da, eta, nolana ere, bermatu egin beharko da hautatutako soluzioa teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare- eta ingurumen-osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

3. Baliabideen eta energiaren erabilera eta kontsumoa.

Apartatu honen xedea da jardueran erabiliko diren baliabideen kontsumoa identifikatzea; hori oinarritzat harturik, gero, erabilera horri loturiko balizko ingurumen-inpaktuak identifikatzeko. Era berean, instalazioak baliabideak eta energia efizientziaz erabiltzen dituela justifikatu beharko da.

Horrela, instalazioan aurreikusitako natura-baliabideen, lehengaien, substantzien, uraren eta energiaren kontsumoen zenbatespenak aurkeztu beharko dira. Urtean kontsumitutako kopuruak adierazten dituen informazioa biltzea garrantzizkoa den arren, baliabide horiek zer prozesutarako izango diren beharrezkoak ere zehaztu beharko da.

Alderdi hauei buruzko informazioa jasoko da:

- a) Energia-kontsumoa: aurreikusitako energia-iturriak identifikatuko dira, kanpoko eta barruko iturriak bereizita. Errekuntza-instalazioak deskribatuko dira; instalatutako potentzia termikoa adieraziko da, baita transformazio elektrikorako azpiestazioak eta guneak ere, halakorik balego.

Urteko energia-kontsumoak zenbatetsiko dira, prozesua banakatuta. Kogenerazio-sistemak direnean, ekoizpen osoaren datua emango da eta kopuru horretatik auto-kontsumorako erabiltzen den ehunekoa zehaztuko da.

Energia aurrezte eta energia-efizientzia sustatzeko abian jarritako neurriak deskribatuko dira, ekipamenduen mantentze-eragiketak barne.

Behar izanez gero, erregai mota bakoitzari dagozkion biltegiatze-eremu berriak deskribatuko dira, honako alderdi hauek adierazita:

- Lurrazaleko biltegiatze-eremuak: neurriak, zoladura, materialak bereizteko neurri fisikoak (behar direnean).
- Biltegiatzeko gordailu/deposituen neurriak eta banakako edukiera, zoladura eta atxikipen-ontzienak (behar direnean).
- Biltegiatzeen kokapen-planoak eta instalazioen krokisak.
- Halaber, aplikatzekoa den araudi teknikoa eta materialak maneiatzeko eta biltegiatzeko erabilitako segurtasun-irizpideak ere adierazi behar dira.

- b) Ur-kontsumoa. Instalazioetan aurreikusitako uraren balantze osoa sartu beharko da, honako hauei buruzko informazioa barne hartuta: ur-kontsumoa, ur galduak (lurrunduak, produktuari erantsiak), isuritako urak eta euri-urak. Fluxu bakoitzerako batezbesteko emarien (m^3/egun), urteko emarien (m^3/urte) eta gehieneko emarien (l/s) zenbatespena adierazi beharko da. Isurketa likidoak sortzen diren prozesu-etapak eta puntuak deskribatuko dira, diagrama batekin batera, beharrezkoa izanez gero. Analisi horretan, uraren birzirkulazioari buruzko zenbatespena ere sartuko da (birzirkulazio-ehunekoa eta osoko birzirkulazio-bolumena, alegia, zenbat m^3/egun).

Uraren birzirkulazio-prozedurak grafikoki erakutsiko dira, inplikaturako prozesu bakoitzeko zenbatekoak adierazita (sarrerak eta irteerak). Birzirkulazio-uraren zenbatespena (birzirkulazio-ehunekoa eta osoko birzirkulazio-bolumena, alegia, zenbat m^3/egun).

Aurreikusitako ur-hornidurako sistemak deskribatuko dira, eta proiektaturako jarduerarako hornidura-ahalmenaren nahikotasuna justifikatuko da.

Prozesu guzti-guztietarako eskatzen den uraren kantitatea eta jatorria justifikatu beharko dira. Alde horretatik, ingurumen-inpaktua izapidetzeko fasean, ur-eskakizunak zehazten direnean, erakunde kudeatzailearen (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa) adostasun-txosten bat aurkeztu beharko da. Egungo sistemek eskari berriei eta karga berriei zerbitzua emateko duten gaitasuna justifikatuko du, edo, horiek nahikoak ez badira, ildo horretan egon daitezkeen arazoei irtenbidea emateko aurreikuspenak.

- c) Lehengaiak eta material osagarriak: biltegiatzea, erabilera eta kontsumoa.

Instalazioetan trataturako lurzoru motei buruzko informazioa eman beharko da, haien izaera, jatorria, erabilitako kantitateak eta mota bakoitzaren proportzioa, biltzeko maiztasuna eta instalazioetara iristen diren materialen partidak kontrolatzeko mekanismoak zehaztuta. Erabilitako hondakin mota bakoitzaren kodetzea zehaztu beharko da, Europako Hondakinen Zerrendaren arabera (EHZ kodeak).

Instalazioan onar daitezkeen hondakinei dagokienez, baldintza hau ezarri beharko litzateke: jatorrizko kokalekuak ingurumen-organoaren hondeaketa-baimena izatea 500 m^3 -tik gorako bolumenak dituzten hondeaketa-jarduketetan, EAEn kokaturako obretarako.

Argitu beharko da zer egingo den metal astunak eta hidrokarburoak dituzten eta, hala badagokio, jasotzen diren lurzoruekin; onartuko diren ala ez, eta zein izango den prozesu batera edo bestera bideratzeko irizpidea, edo prozesu baten ondoren beste batera bideratuko diren.

Bi prozesu-lerroetarako jasotako lurzoruak aldeztu aurretik biltegiatzearen harira, sarrera-fluxu desberdinetarako materialak pilatzeko baldintzak ezarri eta planoetan zehaztu beharko dira.

Era berean, bi prozesu-lerroetarako lurzoruen onarpenaren gehieneko hezetasunaren ehunekoa zehaztuko da.

Instalazioetan erabilitako gainerako lehengaiak eta gai osagarriak identifikatuko dira, dagokion produktuak jardueraren arabera sailkatzeko kodea adierazita, eta kalkulaturako kontsumoak, prozesuko zein eragiketatan erabiliko diren eta haien funtzioa deskribatuta. Aipamen generiko bat egin ahal izango da, oso kopuru txikian erabiltzen direlako edo beste zeinahi arrazoiengatik ingurumenen ia eraginik ez duten material osagarriei buruz.

Erabiltzean CO₂ edo berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioa eragin dezaketen lehengaiak eta gai osagarriak identifikatuko dira.

Prozesuan erabiliko diren eta atmosferara igortzean eragina duten lehengaien orduko gehieneko kontsumoa eta urteko kontsumo totala adierazi beharko dira. Prozesuak etenak izaten baditu, gehieneko kontsumoaren balioa beste denbora-tarte batekoa izan daiteke, inplikaturako prozesuaren iraupenaren adierazgarri baldin bada.

Disolbatzaileak erabiliz gero, aurreikusitako urteko kontsumoa adieraziko da (t/urte erlazioan adierazita). Urteko kontsumoa kontsumitutako lehengai bakoitzaren disolbatzaile edukian oinarrituta kalkulatu beharko da. Disolbatzaileak erabiltzen diren ekoizpen-prozesuak zehaztuko dira.

Instalazioan erabilitako substantzia arriskutsu guztien segurtasun-fitxak igorri beharko dira.

Lehengaiak edo gai osagarriak biltegitratzeari dagokionez, berorien deskribapen zehatza egin behar da, gutxienez, honako informazio hau emango duena:

- Lurrazaleko biltegitratze-eremuak: neurriak, zoladura, materialen aurkezpen modua (ontziratu gabe, ontziratze mota) materialak bereizteko neurri fisikoak (behar direnean).
- Biltegitratzeko gordailu/deposituen neurriak eta banakako edukiera, zoladura eta atxikipen-ontzienak (behar direnean).
- Egoera-planoa, biltegitratze guztiak jasotzen dituen.
- Halaber, aplikatzekoa den araudi tekniko eta materialak maneiatzeko eta biltegitratzeko erabilitako segurtasun-irizpideak ere adierazi behar dira.

Gainera, zehazki deskribatuko dira lehengaien eta gai osagarrien karga- eta deskarga-lanak eta barruko garraioak.

4. Emisioen deskribapena eta zenbatekoa.

Apartatu honetan deskribatuko dira aurreikusitako airerako emisioak eta uretarako isuriak. Horretarako, prozesu bakoitzari dagozkion emisio eta isuri motei, kopuruei eta kutsatzaile bereziei buruzko datuak eman beharko dira.

a) Airerako emisioak.

Airera efluenteak igortzen dituzten iturriak identifikatuko dira, bai konfinatuak, bai lausoak.

Instalazioaren plano orokor bat aurkeztuko da, foku guztien kokapena adierazten duena.

Aurreikusitako foku bakoitzerako datu hauek emango dira:

- Izena.

- UTM koordinatuak.
- Lotutako prozesua edo prozesuak. Prozesuak txosten honen 4.1 apartatuan adierazitakoaren arabera identifikatuko dira.
- Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duen eta berori aplikatzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituen urtarilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren arabera proposatutako katalogazioa. Justifikazioa.
- Jardueraren ondoriozko emisio bakoitzaren jarioaren, tenperaturaren, fluxu-abiaduraren eta osaeraren zenbatespenak. Kalkulu horiek, ondoren, arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatzeko aukera emango duten unitateetan adierazi beharko dira.
- Aurreikusitako ebakuazio-sistemen ezaugarriak: tximinien altuera eta diametroa. Tximinien altuera kalkulatzeko, bereziki A eta B taldeetan katalogatutako fokuetarako, Eusko Jaurlaritzak 2012an egindako 7. jarraibide teknikoak erabiliko da, hau da, (JT-07): Tximinien garaiera. Esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/jarraibide-teknikoak/web01-a2ingair/eu/>

Emisio lausoak aurreikusten badira (usainak, hala badagokio), emisioaren jatorria, horri lotutako prozesua eta aineratutako diren kutsatzaileen zenbatespena (t/urte) identifikatu beharko dira, eta erregimen jarraitua edo etena den adierazi beharko da. Horretarako, instalazioaren planoak gehitzea aholkatzen da, berorretan esandako informazioa argi identifikatzeko.

Horrez gain, honako puntu hauek azpimarratu beharko dira:

- Arazketa-sistema zer den argituko da: zikloi bat eta *scrubber* bat edo mahuka-iragazki bat eta, ondoren, errekontza-ganbera.
- Emandako informazioaren arabera, merkurioaren immisio-maila handiak aurreikusten dira, eta, horretarako, merkurioarentzako berariazko sistema bat beharko litzateke. Argitu egin beharko da kontu hori.
- Beharrezkoa da TPHak errekontza-ganberan zenbat denboraz eta zer tenperaturatan egongo diren adieraztea.
- Organohalogenatuei dagokienez, justifikatu egin beharko da muga-balio gisa % 1 (ppm) ezartzea.
- Aurreikusitako HCl emisio-mailen arabera, beharrezkotzat jotzen da gas azidoak arazteko sistema bat ezartzea.

b) Zaratak eta bibrazioak

Zarata-iturriak eta berorien intentsitatea identifikatu beharko dira, baita jarduerak sortutako zarataren zenbatespena egin ere, lurzatiaren mugan, inguruaren moteltze-ahalmenean oinarrituta (distantzia, hesi naturalak edo eraikiak).

Jardueraren eragin akustikoaren balorazio bat sartuko da, aplikatzekoak diren zarataren arloko xedapen espezifikoak kontuan hartuta, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua.

c) Argi-emisioak

Aurreikusitako argi-kutsaduraren fokua deskribatu beharko dira, baita jardun aurreko egoera ere, proiektuak izan dezakeen eragin-eremuan. Bereizi egin beharko dira zeruko iturri edo objektuen

erradiazioari eta atmosferako goi-geruzen lumineszentziari egotz dakiekeen distira naturala eta kanpoko argiterian instalatutako argi-iturrien ondoriozko argi-distira.

Kanpoko argiztapenaren erabilera efizientea egingo dela justifikatuko da, oinezkoiei, ibilgailuei eta jabetzei eskaini behar zaien segurtasunari kalterik egin gabe. Horri gagozkiola, urbanizazioaren kanpoko argiztapenaren instalazioaren diseinuari, egikaritzeari eta mantentzeari dagokionez, azaroaren 14ko 1890/2008 Errege Dekretuan ezartzen duena eta ondorengo aldaketak hartuko dira kontuan. Dekretu horren bidez onartzen dira kanpoko argiztapen-instalazioen energia-efizientziari buruzko araudia eta horretarako jarraibide tekniko osagarriak (EA-01etik EA-07ra).

d) Uretarako isuriak

Apartatu honetan, jardueraren isurketa-fokuen identifikazioari eta ingurune hartzailera isurtzeko puntuei buruzko informazioa eman beharko da, baita espero diren isurketen ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboen zenbatespena ere.

Ibilgura isuriz gero, isurketa-puntuei buruzko 2. inprimakia bete beharko da, eta hondakin-uren fluxuaren jatorriaren arabera, «Uretako dokumentazio sektorialeko» isurketaren karakterizazioari buruzko 3.2, 3.3, 3.4 eta 3.5 inprimakiak, ingurumen-organoaren webgunean eskuragarri daudenak, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/> Hemen eskuragarri: *Tramitazioa / Ingurumen-baimen bateratua aldatzea / Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea.*

Instalazioko euri-uren fluxuei dagokienez, euri-ur «zikinen» drainatze-sareak, alegia, kutsatzaileak eduki ditzaketenak, eta euri-ur «garbiak» daramatzaten drainatze-sareak bereizi beharko dira, eta azken kasu horretan, euri-ur horietan ez dagoela kutsatzailerik egiaztatu beharko da. Drainatze-sare guztiak plano batean adierazi beharko dira.

Ekoizpen-prozesuko hondakin-urez gain, lixibiatuak sor daitezke tratamenduaren aurreko biltegitratzean, onartutako lurzoruen ezaugarrien eta horiek pilatzeko moduaren arabera. Kontu hori aintzat hartu beharko da.

e) Berotegi-efektuko gasak

Iturriak identifikatzeari, CO₂ duten gasen zenbatespenari eta berotegi-efektuko beste gas batzuen zenbatespenari buruzko informazioa eman beharko da.

5. Hondakinen sorrera eta kudeaketa.

Hondakinak sortzea minimizatzeko hartutako eta/edo aurreikusitako neurriak deskribatuko dira.

Hondakinak sortzen dituzten prozesuak identifikatuko dira, eta prozesu bakoitzean sortuko diren hondakin motak eta kantitateak zenbatetsiko dira.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak daudela justifikatu beharko da, sortutako hondakinei aurre egiteko adinako edukierarekin.

Hondakin bakoitzaren kasuan, honako informazio hau zehaztu beharko da:

- Hondakinaren izena eta kodetzea, Europako Hondakinen Zerrendako kodeen bitartez (EHZ kodeak).
- Hondakin arriskutsuen kasuan, eta prozesu/eragiketa bakoitzeko hondakin bakoitzerako, nola sortzen diren adieraziko da, baita hondakinaren osagai nagusiak eta arriskugarritasun-izaera ematen dioten substantziak ere.

- Hondakinak sortzen dituzten prozesuak eta eragiketak (baita instalazio osagarrietan eta mantentze- eta garbiketa-lanetan sortzen direnak ere).
- Urtean sortzen diren hondakinen gutxi gorabeherako kopurua (kg/urtea).
- Azken kudeaketaren aurreko hondakinak biltegitratzeko sistemen deskribapen xehatua: neurriak, kokapena, edukiera, hondakinak maneiatzeko eta biltegitratzeko erabilitako segurtasun-irizpideak. Hainbat biltegi izanez gero, guztiak deskribatu beharko dira.
- Kudeatzaile baimenduak kudeatu edo jaso aurretik ontziratzen eta biltegitratzen diren hondakin arriskutsuen kasuan, berorien ontziratze-baldintzak (ontzi mota, itxitura, etab.) eta etiketa-moduak adierazi beharko dira. Konpresoreen purgaketak egiten badira, berorien kudeaketaren berri eman beharko da.
- Hondakin bakoitza biltzeko aurreikusitako maiztasuna, kudeatzaile baimendu bakoitzeko.
- Jarioen kontrako babes neurriak eta Produktu Kimikoak Biltegitratzeko (PKB) erregelamendua aplikatzekoa zaien kasuak zehaztu beharko dira.
- Egoera-planoa, hondakinen biltegitratze guztiak jasotzen dituen.

Deuseztatzea proposatzen den hondakinen kasuan, ordezeko balorizazio-biderik ez dagoela justifikatu beharko da.

6. Ingurumen-inbentarioa.

Apartatu honetan eremua deskribatuko da, elementu baliotsuenak eta proiektuko ekintzek gehien eragin ditzaketenak nabarmenduta. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duena betez, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-baldintzak aztertuko dituen txostena ere sartu behar da, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera alderatzeko azterketa bat ere, aztertutako alternatiba bakoitzaren kasuan.

Apartatu hau egiterakoan, kontsultatutako administrazio publikoetatik jasotako txostenak hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, ingurumen-inbentarioaren irismenak txosten horiei eta dagokion irismen-dokumentuan finkatzen denari erantzuten diela justifikatu beharko da.

Lehenik eta behin, ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuaren eragin-eremua zehaztuko da, aztergai dagoen inguruneke elementu bakoitzaren kasuan, eta behar bezala justifikatuko da, oro har onartutako azterketetan oinarrituz. Azterketaren apartatu hori lantzeko erabili den bibliografia aipatuko da.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu baloratuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (tokiko mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak izan.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da. Ekidin egingo dira ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak, eta kontuan hartuko da proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginak ulertzeko behar dena.

Aurrekoa eragotzi gabe, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Klima
 - Azterketa meteorologikoa. Datu klimatikoen jatorria.

- Kokapen horretan haizeak izan ditzakeen ezaugarri bereziak.
- Geologia eta geomorfologia
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko, geomorfologiko eta edafologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak. Interes geologiko/geomorfologikoa duten gune, eremu eta ibilbideen identifikazioa.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia
 - Eremuaren lurrazaleko eta lurpeko hidrologiaren deskribapen egokia. Proiektuaren eragin-eremuko sare hidrografikoa eta uren kalitatea.
 - Eraginpeko lurrazaleko eta lurpeko ur-masei eta horiei lotutako ekosistemei buruzko informazioa.
 - Aldi baterako ur-ibilguen, ur-ibilgu iraunkorren eta instalazioaren elementu guztien artean dauden elkarreraginak adieraziko dira. Bereziki, sarbideak eta ebakuazio-linea elektrikoa eraikitzearen ondoriozko elkarreraginak hartuko dira kontuan.
 - Inbentario bat egingo da, eta bertan jasoko dira eraginpean egon litezkeen ur-guneak eta gertuko biztanleguneak hornitzeko sistemak (urak biltzea, biltegitratzea eta banatzeko sareak). Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartuta dauden beste eremu batzuk identifikatzea, hala badagokio.
 - Proiektuaren ingurunearen geologia eta litologiaren deskribapena.
 - Kutsadurarekiko urrakortasuna, iturburuen eta infiltrazioen kokapena eta inpaktuak identifikatzea eta ezaugarritzea ahalbidetzen duten beste hainbat alderdi garrantzitsu.
 - Proiektuaren eremuko ezaugarri hidrogeologikoak. Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen urrakortasuna. Urrakortasun handiko eremuen, karga-eremuen, hustulekuen eta abarren identifikazioa, halakorik balego, eta eremu horien eta proiektuaren arteko lotura.
- Eremuan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena

Inpaktua behar bezala ebaluatzeko eta babes- eta zuzenketa-neurri egokiak ezartzeko, kartografikoki zehaztu behar da proiektuaren eragin-eremuko landaredi autoktonoaren, Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdeko intereseko habitaten banaketa. Kartografia hori habitatak zehazki mugatzeko erabiliko da —bereziki, lehentasunezkoak—, proiektuak eragin ez diezaien.

Aipatutako intereseko habitat eta komunitateei dagokienez, proiektuaren eraginpean egongo den azalera zenbatetsi beharko da, eta habitat horietako bakoitzaren adierazgarritasunarekin kontrastatu —tokikoa, eskualdekoa eta abar—, habitat horien azaleraren galera objektiboki ebaluagarria izan dadin eta proiektuaren eraginari buruzko irizpen argi bat eman ahal izateko.

Azterketa hau egiteko abiapuntu gisa, geoEuskadin dagoen kartografia tematikoa erabil daiteke, baina informazio hori eremuan bertan kontrastatu beharko da, xehetasun-kartografia *in situ* eginez, ahal dela GIS tresnen bidez, natura-balio handieneko elementuak identifikatzea eta horiek kuantifikatzea ahalbidetuko duen eskala batean.

Landarediaren karakterizazioak barnean hartuko ditu landare-komunitateen kontserbazio-maila, egituraren konplexutasuna, espezie bereizgarriak, enblematikoak edo esanguratsuak eta fauna mehatxatuko espezieak hartzeko ahalmena (umatze-, babes- eta elikadura-eremuak).

Halaber, aztergai den eremuan dauden fauna-komunitateak deskribatuko dira, arreta berezia jarrita fauna-espezie mehatxatuei eta haien umatze-, babes- eta elikadura-eremuei.

Proiektuaren eragin-eremuan putzuak eta hezeguneak baldin badaude, anfibioen komunitateak edo haiei lotutako beste espezie batzuk aztertuko dira. Eremu horiek xehetasun-mapa batean kokatuko dira, obrei ekin aurretik seinaleztatuta eta balizatuta egon daitezen lursaillean, eta

obrek inolako kalterik eragin ez diezaieten.

- Korridore ekologikoak. Habitaten konektagarritasuna/zatiketa

Ingurumen-inpaktuaren azterketan, proiektuak lurraldeko konektagarritasun ekologikoan duen eragina baloratu beharko da. Zehazki, eremua hegaztiak linea elektrikoetatik babesteko eremu gisa identifikatzen denez, linea berriak instalatzen badira, kontuan hartuko da abifauna eta kiropteroetan izan dezakeen eragina. Hala badagokio, beharrezkoak diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak proposatu beharko dira.

- Ondare historiko-kulturala

Kasua bada, proiektuaren eragin-eremuan dauden kultura-intereseko elementuak identifikatuko dira.

- Paisaia

Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Jarduketaren ikusgarritasuna ikuseremuaren hainbat gunetatik, ibilienak lehenetsita, eta gaur egungo egoera eta etorkizuneko konparatuz.
- Kalitatea.
- Hauskortasuna.

- Kutsatuak egon daitezkeen lurzorua

Jarduera lurzorua kutsa dezakeen jarduera gisa jasota dagoen baloratuko da, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen (I. eranskina) eta ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren arabera.

Ihoberen txostenaren arabera, «garatu nahi den proiektua, eta Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedura hastetik salbuetsita geratuko litzateke, jarduera berria hondakinak kudeatzeko jarduerak hartzen duen lurzatiaren mugen barruan instalatu nahi baita».

Hala badagokio, eta aipatutako araudian xedatutakoaren arabera lurzoru kutsatuen arloan aplikatzekoak diren beste betebeharrak batzuei kalterik egin gabe, abenduaren 26ko 209/2019 Errege Dekretuaren 20. artikulua betez, jardueraren eraginpeko lurzatiaren lurzorua duen egoerari buruzko oinarritzko txosten bat aurkeztu beharko da. *Jarduera ezarri berrien kasuan, oinarritzko txostena ingurumen-baimen bateratuaren eskaerarekin batera aurkeztutako oinarritzko proiektuaren parte izango da (20.2 artikulua).*

Oinarritzko txostenaren edukiari eta irismenari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: abenduaren 26ko 209/2019 Errege Dekretuaren X. eranskina, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari buruz xedatutakoa interpretatu eta aplikatzeari buruzko Jarraibide Teknikoa — Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko Aginduaren bidez onartutakoa—.

Beraz, lurzorua kutsa dezaketen iturriak identifikatu beharko dira, baita instalazioan aurreikusitako prebentzio-, defentsa-, kontrol- eta jarraipen-neurriak ere.

Prebentzio- eta zuzenketa-neurriak 11. apartatuan («Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak») eta kontrol- eta jarraipen-neurriak 10. apartatuan sartuko dira. «Ingurumena Zaintzeko Programa».

- Dokumentazio grafikoa
 - Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografikoak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola xehatuan, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

7. Inpaktuen identifikazioa eta balioespena

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioaren elementuen eta inpaktuak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio dira. Erasanaren garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka erasango dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Bereizi egingo dira obra-fase, funtzionamendu-fase eta jarduera eteteko eta eraisteko faseko inpaktuak.

Inpaktuen balorazioak kontuan hartuko ditu proiektutik eratorritako jarduketa guztiak, instalazioaren azpiegitura erantsi eta lagungarri guztiak barne, sarbide iraunkorrak eta aldi baterakoak, lurrak eta materialak aldi baterako pilatzea, etab.

Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta, horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu horretan, funtsean, egungo egoera eta etorkizuneko konparatuko dira, zuzenketa-neurriak erabiliz.

Ingurumen-inpaktuak baloratzeko erabilitako zenbateste-prozesuak eta metodologiak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Ahal denean, gutxieneko muga onargarriak finkatzen dituzten ingurumen-kalitateko helburuak zehaztuko dira aldeztu aurretik, erreferentzia gisa honako hauek hartuta: indarrean dagoen legeria, arestian aipatutako Europako Batzordearen erreferentziako dokumentua (BREF), hots, «Hondakinak tratatzeko Europako erreferentziako teknika erabilgarri onenak», edo onarpen handiko beste erreferentzia batzuk. Erasanaren garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka erasango dien baliabideen kalitatea eta kantitatea. Identifikatutako ingurumen-inpaktuak hierarkizatuko dira, haien garrantzi erlatiboa ezagutzeko.

A priori, proiektuaren eta eragindako ingurunearen ezaugarriak kontuan hartuta, inpaktuak identifikatu eta baloratzearekin lotutako alderdirik garrantzitsuenak airearen kalitatearen gaineko eraginari dagozkionak izango dira, atmosferara egindako emisioen ondoriozkoak (zarata barne), lurzorua eta urak kutsa ditzaketen hondakin eta isurketen ondoriozkoak (lurrazalekoak eta lurpekoak), eta ezarpen-eremuaren ezaugarrien ingurukoak, lurzoruen ezaugarriei eta egon daitezkeen arrisku geoteknikoei dagokienez.

8. Ustiapen-baldintzak eta ingurumena narriatzea saihesteko beste neurri batzuk.

Proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio negatiboak murrizteko, ezabatzeko edo konpentsatzeko aurreikusitako neurriak adierazi beharko dira. Espero diren inpaktuen garrantziaren arabera proposatu eta dimentsionatuko dira zuzenketa-neurriak.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez ere. Aldez aurreko neurririk ezean, ondorio horiek konpentsatzea helburu duten neurriak proposatuko dira, ahal dela lehengoratzeko-ekintzekin, edota ekindako jarduketaren izaera bera eta alderantzizko efektua dutenekin.

Proposatutako prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriek kontuan izan beharko dute, bereziki, airerako emisioak (usainak eta zarata barne), eta uretarako eta lurzorurako isuriak murriztu, saihestu eta zuzentzeko aurreikusitako neurrien deskribapen xehatua. Horren kalterik gabe, eta ebaluazioaren xede diren jarduketan ezaugarriak kontuan hartuta, babes- eta zuzenketa-neurrien proposamenean honako alderdi hauek zehaztuko dira:

Obra-fasean ingurumena narriatzea saihesteko neurriak

- Obra-fasean sistema hidrologikoa eta uren kalitatea babesteko neurriak (jalkinak atxikitze sistemak, instalazio osagarrietatik eta makina-parketik datozen hondakin-uren tratamendua eta abar). Definizio horrek hainbat alderdi hartu behar ditu kontuan, hala nola hartutako irtenbidearen deskribapena, egituren kokapena eta abar.
- Lurzorua eta urak ez kutsatzeko eta kutsatzaileak sakabanatzea saihesteko aurreikusitako neurriak. Makineria-parkeak, instalazio osagarriak eta abar egokitzea (iragazgaiztea, drainatze-sarea...). Horrez gain, jarduera Artigasko zabortearen barruan ezarriko dela kontuan izanda, bai eta, ia osorik, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako lurzati batean egitekoa dela ere (48020-00085 kodea), Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea (I. eranskina) eta ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da.
- Landaredi naturala eta basafauna babesteko neurriak. Besteak beste, intereseko landarediaren zuinketa, elektrokuzioaren aurkako neurriak eta linea elektrikoaren balizamendua talken aurkako sistemekin (txoriak salbatzekoak).
- Konektagarritasun ekologikoko prozesuak ziurtatzeko beharrezkoak diren prebentzio-, babes- eta konpentsazio-neurriak proposatzea.
- Obra-fasean kutsadura atmosferikoa prebenitzeko neurriak: hautsaren, zarataren eta abarren kontrola.
- Kamioien gurgilak obra-eremutik atera aurretik garbitzeko sistemen ezaugarriak eta kokapena; urak tratatzeko sistemetara konektatuko dira.
- Hondakinak obra-fasean kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegiatze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.
- Paisaia integratzeko neurriak.
- Proiektu-eskalako plano bat erantsiko da, kasu bada, landareztatuko diren azalerak zehaztu eta irudikatuko dituen, kasu bakoitzerako aurreikusi den tratamendua ez ezik (ereintzak, landaketak, landare-pantailak jartzea, eremu laguntzaileen eta erantsitako instalazioen tratamendua eta abar), aipatutako gainerako zuzenketa-neurrien kokapena ere adieraziz (material finak atxikitze sistemak, gurgilak garbitzeko sistema, etab.).

Jardueraren funtzionamenduan zehar ingurumena ez narriatzeko neurriak

- Instalazioan hondakinak entregatzeko, hartzeko eta kontrolatzeko baldintzak

Sustatzaileak onarpen-protokolo bat diseinatu beharko du, kudeatzeko gaituta dagoen hondakinak bakarrik kudeatuko dituela bermatzeko. Hala badagokio, laginak hartzeko prozedurak eta maiztasuna zehaztuko dira.

Hondakinak manipulatzeko eta biltegitatzeko neurriak zehaztuko dira, hondakinak ingurunean sakabanatzea galarazteko eta airearen, uren eta lurzorua kutsadura minimizatzeko.

- Airerako emisioak minimizatzeko neurriak

Xehetasun osoz deskribatu beharko dira atmosferarako emisioak (usainak barne, halakorik balego) atzitzeko eta arazteko aurreikusi diren sistemak. Foku bakoitzean, berorri lotutako sistema edo sistemak zehaztu beharko dira. Horrela identifikatutako sistema bakoitzeko, datu hauek eman beharko dira:

- Aurreikusitako atzitzaille mota eta ezaugarri teknikoak.
- Atzitzaillearen neurriak, ateratzea aurreikusten den aire-bolumenaren arabera.
- Arazteko sistema mota eta ezaugarri teknikoak.
- Arazte-sistemaren errendimendua, sarrerako eta irteerako emaria zehaztuta; baita araztea aurreikusten den kutsatzaile bakoitzaren kontzentrazioa ere (sarreran eta irteeran).

Zehatz-mehatz azalduko dira zarata, dardarak, usainak eta argi-kutsadura sortzea eta transmititzea eragozteko aurreikusi diren prebentzio- eta zuzenketa-neurriak.

Aipatutako neurri horiek instalatutako tresnerienak izan daitezke, baina baita eraikineko moteltze-hesietakoak edota lursailaren mugetan daudenak ere.

- Uretarako isuriak minimizatzeko neurriak

Instalazioan sortutako efluenteen konposizioari eta kutsatzaileen kontzentrazio-zenbatespenari erreparatuta, uren isurketa minimizatzeko (efluenteak bereiztea, berrerabiltzea, etab.) eta isuri aurretik arazteko aurreikusitako sistemen deskribapen xehatua egin beharko da, haien ahalmena eta tratamendu-efizientzia adierazita.

Hala dagokionean, uretako dokumentazio sektorialera jo, eta arazte- eta ebakuazio-instalazioei buruzko 4. eta 5. inprimakiak bete beharko dira. Inprimaki horiek ingurumen-organoaren webgunean daude eskuragarri, esteka honetan:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

Hemen eskuragarri: Tramitazioa / Ingurumen-baimen bateratua aldatzea / Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea.

Halaber, URA-Uraren Euskal Agentziaren txostenaren arabera, honako zehaztapen hauek beteko dira:

- Oro har, debekaturik dago ur kontinentalak edo jabari publiko hidraulikoko beste edozein elementu kutsa ditzaketen urak eta hondakinak zuzenean edo zeharka isurtzea (JPHEren 245.2 artikulua²).
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 52. artikulua arabera, oro har, hiri-eremuetako isurketak —hiri-eremuen barnean sartzen dira urbanizazio isolatuak, industrialdeak, industriak edo hiri-hondakinen biltegiak— saneamendu-sistemen instalazioetara konektatu beharko dira.

² 849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa, Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia onartzen duena, urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atarikoak eta I., IV., V., VI. eta VII. tituluak garatzekoak.

- Proiektuan aurreikusitako uren tratamendurako instalazioari dagokionez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren isurketa-baimena izan beharko da, zeina agentzia horretan izapidetu beharko baita, betiere ingurumen-baimen bateratuan sartzen ez bada.
- Justifikazio teknikorik ezean, instalazioko isurketak saneamenduko kolektore nagusira konektatuko dira.
- Instalazio berriren batean sortutako lixibiatu berriek aurretratatamendu gehigarriak behar badituzte kolektorera isuri aurretik, beharrezkoa izango da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko erakunde kudeatzaileak horri buruzko iritzia ematea.
- Hiriko edo industriako drainatze-azpiegituren bidez biltzen diren euri-urak, jabari publiko hidraulikoa kutsatu badezakete, hondakin-urak dira, eta administrazio hidraulikoaren aurrean isurketak baimentzeko prozedura bete beharko dute (Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 50.6.2 artikulua).

9. Lurzoruaren oinarritzko txostena

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 23ko AGINDUA bete beharko da. Agindu horren bidez, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa interpretatzeari eta aplikatzeari buruzko jarraibide teknikoak onartu zen, lurzoruaren eta lurpeko uren egoera zehazteko oinarritzko txosten bat eskatzeari lotua.

10. Ingurumena zaintzeko programa

Bai obra-fasean bai funtzionamendu-fasean, ingurumena zaintzeko programa bat aurkeztu behar da, zeinaren helburu nagusia izango baita proiektu teknikoan eta ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak beteko direla bermatuko duen sistema bat ezartzea, bertan adierazitako jarraibideekin eta neurri zuzentzaileekin batera.

Horrekin lotuta, programa honetan jarraian adierazita dauden alderdien definizioa barne hartu beharko da, hala obra-fasean nola funtzionamendu-fasean:

- Kontrolerako parametroak eta neurtu beharreko kutsatzaileak, emisioen eta isuriaren kutsatzaile bereizgarriak kontuan hartuta (direla gasak direla efluente likidoak). Uren kalitatearen kontrolean, hondakin-urak eta euri-urak, biak sartuko dira.

Behar denean, emisioek eta isuriek ingurune hartzailean dituen eraginak kalkulatzeko ahalbidetuko duten neurketak egingo dira.

- Neurketa guztien maiztasuna. Noizbehinkako kontrolen kasuan, kutsatzaile bakoitzarentzat, neurketaren unea emisioen eta isurpenen adierazgarria izatea baloratu beharko da, jardueraren ekoizpen-sistema kontuan hartuta. Era berean, neurtzeko sistema jarraituak izanez gero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio. Agindu horren bidez, jarraibide teknikoak zehaztu ziren abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak garatzen dituzten instalazioak arautzen baititu dekretu horrek.
- Laginak hartzeko puntu guztien kokapenak (koordinatuak eta planoko kokapena adierazi beharko dira, eta, behar izanez gero, haien kokapenerako krokisak).
- Uren kasuan, plano xehatu bat erantsiko da, kutxatilen, balbulen, emari-neurgailuen, laginak hartzearen eta neurketako eta kontroleko beste elementu batzuen kokapenaren berri emanez. Hala dagokionean, 4. inprimakiko (VII) apartatua bete beharko da, arazketa-instalazioen eta

kontrol-elementuen deskribapenari buruzkoa. Ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, lehen aipatutako estekan:

<https://www.euskadi.eus/baimena/ibb-ippc/web01-tramite/eu/>

- Laginak hartzeko eta neurketak egiteko metodoak kontrolatutako parametro bakoitzarentzat, neurketaren doitasuna —hala dagokionean— eta laginaren adierazgarritasunari buruzko informazioa barne direla, jardueraren ekoizpen-sistema aintzat hartuta.
- Atalase-mugak eta erreferentziako mugak kontrolatutako parametro eta kutsatzaileentzat.

Kasu guztietan, kontrola instalazioaz kanpoko unitate batek egingo duen ala auto-kontrol bat den adierazi beharko da.

Halaber, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginen jarraipen egokia egin ahal izateko, bai obretan, bai instalazioaren funtzionamenduan.

Kalitate-helburuak legediak zehazten dituen muga-balioen edo balio-giden araberakoak izango dira, edota BREF dokumentuen edo oro har onartutako azterketa teknikoen araberakoak. Hala ere, proiektuaren eragin-eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak proposatu beharko dira zenbait parametrotan, beharrezko irizten bada.

Programa horrek jardueraren adierazleen zehaztapena eta adierazle horien analisi-sistematika jaso beharko ditu, enpresan bertan jardueraren ingurumen-kudeaketa egokia bermatzeko ezarri diren neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko.

Aurrekoa gorabehera, ingurumena zaintzeko programak, gutxienez, honako kontrol hauek jaso beharko ditu:

Obra-fasean

- Obren gunetik kanpo kudeatutako hondakinen kontrola. Hondakinen karakterizazioa eta horren araberako kudeaketa.
- Gainazaleko uren kalitatearen gaineko eraginak kontrolatzea.
- Intereseko elementu naturalen gaineko eragina kontrolatzea.
- Obren eraginpeko gainazaletan ezarritako paisaia-lehengoratzearen arrakastaren gaineko kontrola, kasua bada.
- Obra-faserako aurreikusitako zuzenketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

Funtzionamendu-fasean

- Instalazioan hondakinak onartzeko kontrola: Instalazioan onargarritzat jotzen diren hondakinak onartzeko protokoloa.
- Prozesuen parametroak kontrolatzea.
- Instalazioetan sortutako hondakinen biltegiratzea eta kudeaketa kontrolatzea.
- Atmosferara egindako emisioak kontrolatzea.
- Efluente likidoak kontrolatzea.
- Zarata kontrolatzea.
- Funtzionamendu-faserako aurreikusitako zuzenketa-neurrien eraginkortasuna egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

11. Prebentzio-neurriak eta ohiz kanpoko egoeretan funtzionatzeko baldintzak

Apartatu honetan jasoko dira ingurumenean eragina izan dezaketen ohiz kanpoko funtzionamendu-egoeren ondorioak ekiditeko, edo, besterik ezean, arintzeko aurreikusitako neurriak. Egoera horien artean aurreikusiko dira jario, funtzionamendu-akats, aldi baterako gelditze eta instalazioaren behin betiko itxiera kasuak.

Alderdi hauei buruzko informazioa eman beharko da:

a) Gelditze eta abian jartze egoerak. Apartatu honetan sartzen dira bai nahiko maiz gertatzen diren egoerak, ekoizpen-araubidea ez delako jarraitua (adibidez, asteburuko geldialdia), bai mantentze-programak aplikatzetik eratorritako egoerak. Aztertutako egoera bakoitzerako, honako hauei buruzko datuak emango dira:

- Lotutako prozesua edo prozesuak.
- Maiztasuna.
- Gelditzeko eta abian jartzeko protokoloa.
- Erator daitekeen balizko ingurumen-eragina; kasu bakoitzean, emisio edo isurien balioak eta hondakin-sorrera adierazi beharko dira.
- Emisio edo isuri eta hondakin horiek murrizteko aurreikusitako neurriak.
- Instalazioetan tratatu behar diren hondakinak biltegitartzeko edukiera eta/edo kudeatzeko alternatiba.

b) Ohiz kanpoko funtzionamenduko egoerak

b.1) Kutsatzaileen ihesak eta barreiatzea eragozteko aurreikusitako prebentzio-neurriak. Ihesik izanez gero, lurzorua babesteko aurreikusitako neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztasuna), biltegitartzeko neurri bereziak (lehengaiak, erregaiak, substantzia arriskutsuak), gerta litezkeen ihesei antzemateko neurriak edo gehiegizko betetzeaz ohartarazteko alarma-sistemak, fabrikako kolektoreen sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isurketak edo hautsezko produktuak biltzeko sistemak. Era berean, atmosferaren eta ur-ingurunearen kutsadura arazteko eta zuzentzeko sistemen prebentziozko mantentze-plan bat aurkeztu beharko da, bai eta horiek matxuratuz gero aurreikusitako neurriak ere.

Aurreikusitako emisio-mailak une oro betetzen direla bermatzeko kritikotzat jotzen diren elementuak identifikatuko dira, eta prebentzio-neurri egokiak proposatuko dira: ekipamenduen erredundantzia, segurtasun-stockak, etab.

b.2) Ohiz kanpoko funtzionamenduaren kasuan jarduteko protokoloa. Jarduteko protokolo bat eduki behar da eskura, ingurunean eragin negatibo garrantzitsuak izan ditzaketen gorabeherak edo anomaliak gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak, gutxienez, honako gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzarentzat:

- Gerta daitekeen ohiz kanpoko funtzionamenduko egoera.
- Ohiz kanpoko funtzionamenduko egoeraren balizko zergatiaren identifikazioa.
- Esandako egoeratik erator litekeen ingurumen-eragina.
- Esandako egoera eragozteko aurreikusitako prebentzio-neurria.
- Berehala gauzatu beharreko jarduerak, ondorioak murrizteko.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

c) Hondamendi naturaletarako, istripu larrietarako edo beste edozein gorabeheratarako jarduketa. Jarduteko protokolo bat eduki behar da eskura, hondamendi naturalak, istripu larriak edo ingurumen-eragin negatibo nabarmenak eragin ditzakeen beste edozein gorabehera edo anomalia

gertatuz gero erabiltzeko. Protokoloak, gutxienez, honako gai hauek argi eta garbi zehaztu behar ditu, gerta daitekeen gorabehera edo anomalia bakoitzarentzat:

- Jarraitu beharreko jarduketak, agintariei jakinarazpena helaraztea barne.
- Jarduketen segida.
- Jarduketa bakoitzaren arduraduna(k).

B) LABURPEN EZ-TEKNIKOA

Proiektu teknikoaren eta ingurumen-inpaktuaren azterketaren sintesi-dokumentua sortu beharko da, ondorioak barne, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren, 12.2 artikuluan adierazitako ezaugarriekin.

Dokumentuan labur-labur eta jendeak ulertzeko moduan bildu beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak ekiditeko edo minimizatzeko proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean izan diren zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

C) APLIKATZEKO DEN LEGERIA SEKTORIALEAN EZARRITAKO BESTE DOKUMENTU BATZUK

Arestian azaldutako apartatueta eskatutako dokumentazioa, hala badagokio, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen X. eranskinean adierazitako berariazko alderdiekin osatu beharko da.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 77. artikuluan eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organoiari hauek bidali behar dizkio: ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu behar diren dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-edukiari eta kontuan hartzeko moduari dagokienez.

Dokumentazioa aurkezteko, aintzat hartuko dira xede horretarako egin diren jarraibideak. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean daude eskuragarri (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumen-ebaluazioa/>), apartatu honetan: Arloak > Ingurumen-ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura izapidetzea > Eskaerak aurkezteak.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Indarreko xedapenen arabera isilpekoak diren datuak dokumentu bereiz batean aurkeztuko dira. Kasu horretan, enpresa eskatzaileak argi adierazi beharko du zein informazio den isilpekoa bere iritzian, eta eskaera hori justifikatzeko ondorengo datu hauek eman beharko ditu:

- Eskatzailearen aburuz isilpekotasuna zer arauditan oinarritzen den identifikatu beharko da; bai eta dagokion agiri egiaztatzailea aurkeztu ere.
- Merkataritza-sekretua denean, enpresaren barruan sekretua bermatzen duten protokoloak.

Ingurumen Batzordeak erabakiko du dokumentazioa isilpekoea den ala ez, eta agiri horiek jendaurreko informazioaren izapidetik kanpo geratuko dira.

Bigarrenena. – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak bi urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Dokumentuak balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren azterketa, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuko Zerbitzuari.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 24a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,

Javier Aguirre Orcajo.